

ARABA ESI/BIOARABAREN V. SARIA: 2018KO PROIEKTU BERRITZAILE ONENA

1.- SARRERA

Araba Erakunde Sanitario Integratua, Arabako Unibertsitate Ospitalea eta Arabako osasun-zentro gehienak barne hartzen dituena, Arabako osasun-zentro nagusia eta Euskal Osasun Sareko hirugarrena da. Laguntza, irakaskuntza eta ikerketako ospitale den heinean, bikaintasuna lortu nahi du arlo guztietan. ESIko oinarrizko zutabe eta etorkizunerako apustu garrantzitsuenetariko bat da ikerkuntza.

Ikerkuntza biomedikoan, osasunari lotutako ezagutza berriak lortu behar dira; berrikuntzaren xedea, aldiz, lortutako ezagutza aplikatzea da, eta aukera eman behar du pazienteen, bere senideen eta artatzen dituzten profesionalen bizitzarako nahiz komunitaterako hobekuntzak sortzeko.

Biztanleen zerbitzura dagoen ospitale-zentro publiko gisa, hobekuntzak sortzeko etengabeko berritzeari loturiko egitura dinamikoz osatuta dago. Hobekuntza horietako asko langileek beraiek berrikuntza sortzeko duten gaitasunetik sor daitezke. Sariak erakundeko estamentu guztietan du eragina: langile fakultatiboak, erizainak, laguntzaileak, administrariak, zeladoreak, informatikako langileak, garbiketa eta garbitegikoak, sukaldekoak, mendeko langileak eta mantentze-lanetakoak. Horiek guztiek daukate Araba ESia eta bere ingurua hobetzeko berrikuntza sortzeko gaitasuna.

Ondorioz, berrikuntza horrek ospitaleko egituretako alderdi ugari barne hartzen ditu; esaterako, ikerketa-proiektuek sortutako ezagutza zientifikoak aplikatzea eta pazienteei eta erabiltzaileei laguntzeko gida klinikoak eta prestakuntza-gidak garatzea. Halaber, barne hartzen du gaixoen eta beren senideen ospitaleko bizitza eta baldintzak hobetu ditzaketen sistema edo prozedurak sortzea, bai eta ospitaleko mantentze-sistemak edo administrazioa hobetzea ere. Azken finean, publikoki aitortu eta saritu nahi dugu Araba ESIko langileek ospitalea gizatiarrago, erosoago eta efizienteago egiteko proiektu berritzaileak sortzeko duten gaitasuna.

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, Araba ESI/Bioarabaren V. Berrikuntza Sariak deitu dituzte Araba ESIak eta Bioarabak.

2.- AZALPENA

Araba ESI/Bioarabaren Berrikuntza Sariak osasun-arloan gaitasun berritzailea erakusten duten erakundeko pertsonak eta/edo talde sanitario eta ez-sanitarioak aitortu nahi ditu.



Deialdiaren asmoa da ezaugarri berritzaile nabarmena duten ekimenak saritzea, bai duela gutxi gauzatu direnak bai garapen-prozesuan daudenak.

Bi modalitate izango ditu sariak:

- A. Langile sanitarioak.
- B. Langile ez-sanitarioak.

Bereziki azpimarratu nahi da saria ez dagoela soilik erakundeko mediku, farmakologo, farmazialari, kimikari, biokimikari, biologo eta erizainei zuzenduta, ospitaleko estamentu guztiei zuzenduta baitago: gizarte-langileak, laguntzaileak, zeladoreak, administrariak, informatikako langileak, mendeko langileak, mantentze-lanetakoak eta, azken finean, paziente eta/edo erabiltzaileentzako eta/edo langileentzako eta/edo komunitatearentzako onuragarri izateko ahalmena duen eta gaitasun berritzailea erakusten duen Araba ESiko edozein langile.

3.- DEIALDIAREN XEDEA

Ezagutzera ematea eremu mediko-sanitarioan berritzaileak diren eta osasuna sortzeko eta/edo sistemen efizientzia hobetzeko eta/edo ongizate sozialean laguntzeko gai diren ekimenak.

Aitortza ematea eta medikuntzaren eremuan eta eremu soziosanitarioan ekimen berritzaileak garatzeko gai diren Araba ESiko pertsonak eta/edo taldeak sustatzen laguntzen duten bideak eskaintzea.

4- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Araba ESiko edozein pertsona eta/edo langile-talde izan daiteke deialdiko hautagai; azken 2 urtetan gauzatutako proiektu berritzaile bat aurkeztu behar du (bukatuta zein garapen-prozesuan), eta proiektuaren emaitzak adierazle objektiboen bidez neurtzeko aukera izan behar du.



Proiektuak bere egokitasunaren, egingarritasunaren eta aplikagarritasunaren arabera ebaluatuko dira, baita Osakidetzako onuradunengan (pazienteak, senideak, erabiltzaileak eta langileak) izan dezaketen eraginaren arabera.

Proiektuek onura soziala, efizientzia, aberastasuna eta lanpostuak sortzeko duten ahalmena aztertuko da, bai eta komunitatean izan dezaketen eragina eta ingurumen-balioa ere.

Proiektu berritzaileen helburua medikuntzaren, osasunaren eta ongizatearen eremuko alderdi hauetako batzuekin lotuta egon beharko da:

- a) Ikerketa mediko-zientifikoa.
- b) Osasun-arrisku eta gaixotasunen prebentzioa.
- c) Prestakuntza eta sentsibilizazio sozial eta profesionala.
- d) Erantzukizun sozialaren, elkartasunaren eta lankidetzaren sustapena medikuntzaren eremuan.
- e) Gaixotasunen diagnostikoa eta tratamenduak.
- f) Osasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak.
- g) Ingurumenean eragina duten osasun-proiektuak.
- h) Prozesuak efizienteago egiten dituzten, jarduera asistentziala hobetzen duten edo pertsonen gogobetetasunean eragina duten antolakuntzaren arloko berrikuntzako proiektuak.
- i) Administrazio-sistemak, mantentze-lanak edo Araba ESIko pazienteen garraioa hobetu eta efizienteago egiten duen berrikuntza.
- j) Berrikuntza Araba ESIko garbiketarekin, garbitegiarekin eta sukaldearekin loturiko alderdietan.
- k) Bizitza-ohitura osasuntsuen sentsibilizazio- eta kontzientziazio-jardueren sustapena.

Parte hartu nahi duten pertsona eta/edo taldeek hautagaitza bidali beharko dute lanak igortzeko online plataformaren bidez: <http://jornadas.bioaraba.org/>. Horrez gain, deialdiaren baldintzak bete beharko dituzte.

Beharrezkoa izango da proiektuaren helburuak lor daitezkeela bermatzeko egitura nahikoa izatea.

Proiektu bat bakarrik aurkeztu ahalduko du pertsona fisiko eta/edo talde bakoitzak.

Positiboki baloratuko da –nahiz eta ez den baztertzeko arrazoi izango– pertsonak eta/edo taldeek deialdiaren edukiarekin loturiko jarduerak eta proiektuak egiten esperientzia frogagarria izatea.



Proiektua aurkezteko epea Bioarabaren webgunearen bidez irekiko da, 2018ko ekainaren 11n, 00:00etan; eta 2018ko irailaren 17an itxiko da, 23:59an.

Jardunaldiei buruzko informazioa eskuragarri dago Bioarabaren webgunean (www.bioaraba.org), eta informazio xeheagoa, XVIII. Ikerkuntza Jardunaldien webgunean: <http://osaraba.eus/eu/xviii-ikerkuntza-jardunaldiak/>

Edozein galdera izanez gero, deitu BIOARABAKO idazkaritzara: 945 00 73 36.

5.- EBALUAZIO-BATZORDEA

Araba ESIko Berrikuntza Batzordeak izendatuko duen batzorde mistoak ebaluatuko ditu proiektu guztiak.

Bereziki azpimarratzen da deialdia ospitaleko estamentu guztietara zuzenduta dagoela, eta argi uzten da ez dagoela lehentasuna duen estamenturik eta Ebaluazio Batzordeak deialdiaren oinarrien arabera baloratuko dituela proiektuak, ez langileen eta/edo taldeen jatorriaren arabera.

4

6.- AURREKONTU-ZUZKIDURA

Langile sanitarioarentzako berrikuntza-saria: 2.000 €

Langile ez-sanitarioarentzako berrikuntza-saria: 2.000 €

Sari horien zenbatekoa proiektuarekin berarekin loturiko gastuen araberako fakturak aurkeztean ordainduko da.

Horrekin batera, Araba ESIko beste proiektu berritzaileetan bezala eta Bioefen Ikerketaren Emaitzak Transferitzeko Bulegoaren (IETB) bitartez, aholkularitza emango da (zaintza teknologikoa, adimen lehiakorra eta ideien babesa). Era berean, Berrikuntza Batzordeak eta Bioarabak laguntza emango diote saritutako proiektuari, asmatzaileek patentea, utilitate-modeloak eta/edo jabetza intelektuala



izan dezaten eta produktua enpresa-lizitaziora bideratu eta merkaturatu dezaten, hala, balioa sortzeko.

Kategorietako bat hutsik geratuko balitz, Berrikuntza Batzordeak aukera izango du saria hutsik geratu ez den kategoriari emateko.

Proiektuak saritu diren edo ez diren alde batera utzita, aurkeztu diren proiektu guztien bideragarritasuna aztertuko dute Bioarabak eta Berrikuntza Batzordeak, eta orientazioa eta aholkuak emango dizkiete egileei, proiektuak garatzeko eta aplikazioa errentagarri egin ahal izateko era egokienari dagokionez.

Sariak Araba ESI/Bioarabaren XIX. Ikerkuntza Jardunaldietan emango dira, Europa biltzar-jauregian, 2018ko urriaren 25ean.

Izpta.: Jesús Larrañaga Garitano jauna
ZUZENDARI KUDEATZAILEA. ARABA ESI

Izpta.: M^a Ángeles García Fidalgo andrea
BIOARABAKO ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

